

SIMENON EUSKARAZ EDO EUSEBIO ERKIAGAREN ASPALDIKO MAIGRET

1. Georges Simenon (1903–1989): ehun urtegarren baten ospakizuna

Uda honetan, urteko oporrak direla eta, Belgikan zehar ibiltzeko aukera izan dut. Tenez egindako joan-etorrietan, geltokietako liburudendak izan ditut begien eta gogoaren jakin-minekoak, eta horra hor non izan dudan aurkikunde ezohikoa, Bruselako Gare du Midi egonaldietan. Izan ere, erruz eta ugari ziren hango apaletan Simenon idazlearen argitalpen berriak.

Ezagunak zitzaizkidan lehendik eta gaingiroki bada ere, Georges Simenon (Lieja, 1903; Lausanne, 1989) belgikar idazlea eta hark ondutako polizia-giroko eleberriak. Paperezko orrialdeetara ekarri ditu Simenonek hamaika lapur, gaizkile, polizia, juje... eta gainerako gizabanako susmagarriak nahiz misterio korapilatsuak. Astunak baino, irakurketa errazekoak eta arin irenstekoak dira harenak, eta zer esanik ez, arrakasta handikoak.

Berak sortua ere, sona handiko ikertzailea, Jules Maigret inspektorea, halako eleberrietan ugari izaten diren korapiloak askatzen egundokoa.

Horrainokoa nuen nire Simenonen jakingarria. Ikusten denez, modurik arruntenean eta inolako entziklopediari begira-

tzeko premiarik gabe edozein egunkari-irakurle soilak izan dezakeena.

Laster argitu ziren, alabaina, nire harriduraren iturburuak. Izatez, Simenonek ehun urte izango zituen aurtan, Belgikako Liejan jaio baitzen 1903. urtean. Halaxe zioen nire eskuetara euro batzuen truk zuzen-zuzenean etorri zen eleberriak. Hantxe bertan, sakelako argitalpenaren moldakuntzapean, idazlearen nondik norakoak ageriko eta labur-laburrak. Ehungarren urtea, beraz, gizartearen aurrean oroitzekoa.

Gizondu ostean, kazetaritzak eraman zuen Georges Simenon eleberrigintzara, Liejatik Parisera. Eleberriak eleberri, 1931. urtean hasi zuen Maigret inspektorearen liburu-saila. Gerora ere, sail luze izan zitzaion hori, 102 ikerketa burutu baitzituen ustezko inspektore horrek Simenonen lumatik. Ikertzaile pipaduna, lasaitsua, ongiaren eta egiaren alde jarduten ederto zekiena.¹

Ez zion horrek bestelako testuak idazteko adorerik kendu idazle belgikarrari. Iparramerikan bizi ondoren, berriro ere Europaratu zen, azkenen egontokia Suitzan finkatu arte. Hil ere, 1989. urtean zendu zen Lausannen.

Anartean, esan legez, makina bat historia, eleberri, pelikula eta telebista-sail, asmakizuneko Maigret horren inguruan. Oraindik ere, ikusgarri dira eite horretakoak, frantses hizkuntzaren eremuko hainbat telebista-saretan.

Non, ordea, haren arrakasta? Askoren aburuz, lehen esan bezalaxe, idazkera sotilean, irakurlearen jakin-mina atzemateko trebezian, eguneroko historia misterio larri bihurtzeko teno-

¹ Iritziak iritzi, hona hemen euskarazko policia-eleberriak egoki aztertu dituen Gotzon Garaterena, in GARATE, G.: *Atzerriko eta Euskal Herriko Polizia Eleberria*, Elkarlanean, Donostia, 2000, 132. or.: "Maigretek gaizkileren bat harrapatu nahi duenean hildakoaren inguruko gizartea aztertzen du, zer-nolako giroa den. Maigret, lehenago Chesterton bezala, gaizakeriaz baino gaizkileaz arduratzen da. Maigret egiazko gizona da. Ez da superman bat."

rean... Horiek izan daitezke, beste askoren artean, belgikar idazleak erdietsitako oihartzunaren arrazoiak².

Edozein modutan ere, entzute handi eta zabaleko idazlea, XX. mendean noranahiko ospea eskuratu zuena.

2. Simenon eta Erkiagaren *Aspaldiko Maigret*: testu galduaren bila

Aurreko xehetasunak jakin eta nire asmoa berehala lerratu zen hurrengo puntu batera, alegia, ea euskaraz Simenonen testurik ote zegoen³. Ezinbestekoa, beraz, haren euskal itzulpenak gauzatzea.

Itzulpenak, alabaina, itzultzailea eskatzen du nahitaez. Itzultzailea, bestalde, jabetu behar da itzuliaren garrantziaz.

Simenonen lana XX. mendeko hirugarren hamarkadan hasi zen. Haren aztarnarik bai orduko euskalgintzan? Egia esan, urte gozatsuak bezain latzak bizi zituen euskarak aldi hartan. Bigarren Errepublikaren loraldiaren ostean, gerra zibilaren indarraldiak aro beltza ezarri zuen. Han ito eta zokoratu zen euskararen gintza, aginduzko erdararen itsas hondar gabean galduta.

² Berrito ere Garaterengana jotzen dut, in GARATE, G.: *Atzerriko eta Euskal Herriko Polizia Eleberria*, Elkarlanean, Donostia, 2000, 132. or.: "Simenonen polizia eleberritan, ekintzak eta jakin-minak pisu handia badute ere, teknika bikaina agertzen da eta giroa eta pertsonaien aurrria ongi zehaztuak azaltzen dira".

³ Ezin aipatu gabe utz *Enigmes*-lanaren euskaratzea. Erkiagaren testua nire kezka nagusia izanagatik ere, beude hemen bi aipamen beharrezko. Lehena, Iñaki Mendigurenek burutu testuarena, Elkarlanean etxearentzat taxutua. Hortaz, fitxa honetara legoke, SIMENON, G. (euskaratzailea Iñaki Mendiguren): *Enigmak*. Elkarlanean, Donostia, 1993. Bost argitalpen izan ditu horrek. Bestetik ere, aipuan jar daiteke Koldo Mitxelena kulturguneak bultzaturiko erakusketa, Simenonen jaiotzaren ehugarren urtea ospatzeko. Erakusketaren katalogoa (Gotzon Garateren atarikoarekin) erabat lagungarri gertatu zait lantxo honetarako.

Berrogeigarrenak ere, hobeak ez. Gero, halako batean, erdi-ezkutuan, berrogeita hamargarrenetan, burua jasotzeko aha-
leginak, eta horien aurrelari, Euskaltzaindia. Euskara bizkortze-
ko tenorean, Euskaltzaindiak euskarazko testugintzari ekin
zion. Testu klasikoak aintzat hartu eta argitaratu (*Axular*,
Lardizabal...) eta sariketak antolatu.

Horietako batean, lehiaketarako deia egin zuen Euskal
Akademiak 1954. urtean. Jatorrizko testuak zein itzuli bidezko-
ak ziren haliokoak. Zer itzuli eta nork egin, Eusebio Erkiaga
lekeitiarrak, Bilbon bizi zenak, Simenonen testu bat oinarri
hartu eta lehiakide erakutsi zuen bere burua, itzulketaren bi-
dez Simenonen *La première enquête de Maigret* (1949) eman
zuela. *Aspaldiko Maigret* titulua jarri zion euskaraz.

Garaiko pentsamoldeari egokitzen zaio lekeitiarraren itzul-
pena, Bilbo inguruan zebilen talde hark —*Krutwig*, *Garro*,
Arrutza eta abar— egin zuen ahaleginaren adierazle.
Gipuzkeraz osatua, euskara baturanzko bidean zetorren testua,
Simenon moduko —eta modako— idazleak euskaraz eskaini
nahian. Barra-barra zebilen Simenon jendearen eskuetan, ira-
kurketa gozo eta erakargaria zuen, giza talde askorengana eus-
karaz heltzeko gogoa... euskal literatura baterako jokoa zen
horretan. Asmo horren ararteko, bistan da, polizia-giroko ele-
berria. Gotzon Garate literatura historialari bikainak ere antze-
koak azalarazten ditu, Joxe Antonio Loidi, euskal polizia-elebe-
rri lehenaren egilea, *Amabost egun Urgain'en* testua idaztera
zerk bultzatu zuen papereratzean:

*Simenon eleberriak euskarara itzultzen hasi
zen eta egun batez pentsatu omen zuen. "zergatik
ez dut nik neuk polizia eleberriren bat idazten?"⁴*

Begi-bistakoa denez, Erkiagak, Loidik ez bezalaxe, itzultze-
ari ekin zion. Esan eta egin, testua euskaraz aurkeztu zuen sa-

⁴ GARATE, G.: *Atzerriko eta Euskal Herriko Polizia Eleberria*, Elkarlanean, Donostia, 2000, 58. or.

riketara. Baita hirugarren saria lortu ere, orduko bostehun pezeta bereganatuz.

Lehiaketa berean, aipamen berezia merezi zuen lehen aipaturiko Joxe Antonio Loidiren *Amabost egun Urgain'en* izenekoak, gerotxoago argitaratu eta euskarazko polizia-eleberriaren hasiera ekarri zuenak.

Agerikoan jarri eta inprentarako bidea ez zuen ikusi, ordea, Erkiagaren testuak, sariturik gertatu arren. Maigretek berak asmatuko ez lukeen misterio eta isilpeko baten barruan sartu zen aurrerantzean Erkiagaren testu hau.

Erkiagak berak galdutzat jo zuen *Aspaldiko Maigret*. Hona hemen, horren erakusgarri, bi testu. Lehena, berak 1988. urtean atondu zuen *Opera omnia* delako horretatik aterea:

1955 Euskaltzaindiak, eleder-batzaldia,, nobela originalak edo itzuliak, 3g. SARIA. Euskeraturiko lana, Georges Simenon-en Aspaldiko Maigret. Lan hau be, aldendu dabe Eibarren⁵.

Bigarrena, hur-hurrekoa, Roberto Mielgok egin zion elkarrikeria. Zehatz-mehatz azaldu zuen lekeitiarrak testu horrekin gertatu zena:

Ta handik ta urtera, hemen Azkue hil zala, gero Jon Etxaide, Etxaide, aita zala, batzaldia, hor orijinalak edo itzuliak, ta orduan egin neban nik neronek Aspaldiko Maigret ta... Enrique, Enrique Ayerbe, hori da Ibarrekoa, berari emon neutsan etxera eroateko, hau eta bestea be bai, ta orain galdu egin da... esango deusut, orain urte bi galde egin eustan batek ea hori egin neban, ta nik "bai, baina Enrique Ayerbek daukaz hor, ezagutuko dozu" "Bai, esango diot", ta hor ez bata ez bestea, gal-

⁵ ERKIAGA, E.: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak)*, I, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2001, 78. or.

*du egin da, zer egin da? Kopiatuta neukan ta berari emon, zertarako? Zoritxarrean. Ta hori itzulpena izan zan*⁶.

Erkiaga hil eta gero, haren berbalauko lanak bildu eta argitaratzeko erabakia nireganatu eta berebiziko ahaleginak egin nituen testua berreskuratuzko. Lehen-lehenik, familiarekin gauzatu nituen harremanak. Ezin lagungarriago izan zitzaizkidan horiek, besteak beste, hamaikatxo antzerki, narrazio eta itzulpen-lan argitara ekartzeko. Zer esanik ez, Erkiagak berak al-dendutzat jotzen zuen Platon-en *Parmenides* (1955) hura ere. Alfer-alferrik, ostera, *Aspaldiko Maigret* aurkitzeko ahaleginak.

Izan nuen, alabaina, eta Erkiagaren liburuak plazaratu aurretik, azken saiakera egiteko aukera. Ikertzaile-piparik izan ez arren, ekinean jardun nuen testuaren atzetik. Gakoa, hala ere, beste nonbaitetik etorri zitzaidan, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekatik. Hara zuzendu nuen nire ekina, 1954. urteko lehiaketarako aleak bertan izango zirelakoan.

Azkue Bibliotekako beharginekin batera, zur eta lur ibili nintzen, hango paper eta abarrekoen artean, gure aurrean *Aspaldiko Maigret* hura agertu arte.

Agertu ere, paper-sail baten barruan agertu zen, gainazal batzuen barruan egoki jarrita eta sailkatuta. Han ziren 1954. urtean lehiaketarako gaiak izan zirenak. Baina agertu bezain laster, horra etsipena! Xehetasun eta itxura guztiak Erkiagaren lorrazarekin batera etorri arren, testuaren gainazalean bazen bestelako esamoldea, hantxe bertan norbaitek eskuz idatzia baitzuen honako hau: *Estanislao Urruzola "Uxola" k euskaratu*. Testua, aldiz, gipuzkeraz idatzia zetorren, lantzean behin aditz, grafia eta esaera bizkaitarrak tartekatzen baziren ere.

⁶ MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1995, 151. or.

Ez nuen orduan aintzakotzat hartu testu hura, *Uxola* tolosarrarena zelakoan, eta horrexegatik, nik neuk ere galdutzat jo nuen testua, eta nire bildumatik kanpo geratu zen.

Hala egitea biziki damu dut, gaur egunean, hau da, urte bi geroago, testu hura berriro aintzat hartu, artikulua hau idazteko erabili eta erabat konbentziturik bainago testu hori dela Erkiagaren jatorrizko *Aspaldiko Maigret*, halako batean eta beste ale batez lekeitiarraren eskutik Eibar aldera joan eta bertan ostendu zena.

Non, beraz, nire okerreko bidea? Hastekoa, testuaren gainazaleko aipamenean, lehen adierazi dudan moduan; jarraitukoa, *Uxola* tolosarraren biografian, itxura denez, behar ez bezala irakurri nuena⁷. *Uxola* zenaren biografia hartan, bista-bistarako, bestelako zetorren, hots, *Uxolak* Simenonen beste eleberri bat itzuldu zuela, hain zuzen ere, *Le dependu Saint-Pholis, Liejako urkatua* euskal izenburupean.

Zerk eraman nau bide berrira? Bi-bitakoak dira arrazoiak, aurrerago galdutzat jo nuena gure artean dagoela uste izateko: aurrena, testuaren hasieran dagoen hiztegitxoa, Erkiagaren tankekerakoa; hurrena, testuaren zati batzuk, hark idazteko eta itzultzeko zuen dohaina nabarmen erakusten dutenak⁸. Eginginean ere, bi horiek eskaintzen ditut hemen, irakurle ohar-tuak here iritzia itxuratu eta nire esanaren zuzena berresteko edo ezesteko abagunea izan dezan.

Izatez, testu luzetxoa dugu, berrehun eta hirurogeita hamai-ka orrialdekoa. Erkiagak 1954. urtean ondu zuen, nekez eta arineketan, lehiaketara aurkezteko asmotan. Noiz bukatu zuen ere jakina da, testutik bertatik erakartzen denez: *1954ko uztai-*

⁷ URRUZOLA ETA BITORIA TAR ESTANISLAO (UXOLA), *Antzerki* 5, 1983. Ikus, hala-ber, ONAINDIA, S.: *Euskal literatura VI*, Etor, Bilbo, 1990, 72. orrialdetik 75.erakoak.

⁸ Hitz berriak kapituluka sartzen ditu Erkiagak. Testu-zatiak jatorrizko grafian ematen dira.

lak 22. Gauzak horrela, irakur dezagun Erkiagaren aitortza, testuaren atarian:

Oarrak

Leena.- Erabili dudan makiñaren letrak txikiak baitira, 271 orrialdetan sartu da lasai eleberri onen edapena.

Bigarrena.- Idazlan au garbiago dedin, hateg ere VI ATALE-AN lerrokada batzuk moztu izan ditut, iruzpalau aldiz, eta onelan edonorentzat ere irakurgarri dela uste dut.

Irugarrena.- Arazopean lotua, eta epea bete-urren izaki, irakurri-ala euskeratu eta makiñaz idatzia izan da lanau, gure Euskaltzaindia-ren deiarri eder egin nairik.

Hona, beraz, Simenonen jaiotzaren ehun urtegarrenean, haren testua euskaratua eta berreskuratua.

Eginkizun da oraingoan testu hori euskal irakurlearen eskuetan jartzeko prestakuntza, laster batean bideratzeko asmoa dudana. Esan gabe doa, bide beretik ere, seguru nagoela, Erkiagaren idazmaila ikusirik, polizia-giroko euskarazko eleberrien zerrenda eta hizkera aberastuko direla zorioneko aurkikuntza berri honen bidez.

Andres Urrutia

I

Zirulari = flautista

Men-yantzi = uniforme

Letoizko maindire = plancha de latón

Komisari = comisario

Komisaritegi = comisaría

Zadorlari = secretario

Ikerle, ikertzaille = inspector

Gizakera zeaztasunak = filiación descriptiva

Kale-albeni, kalemuna = acera, trottoir
Banatuia = particular, separado
Kilimiska = broma
Etxegizon = mayordomo
Aundikeru = solemne
Morroie = individuo / criado
Iragangu = pasillo
Espe-auzi = querella
Zirrimirri = desconcertado

II

Errezel = cortina
Lurraspil = palangana
Ezpataketan = esgrima
Tiletez-tilet = minuciosamente, punto por punto
Laurka = cuadro
Telefono izpide = comunicación telefónica
Zaiketari = estar de guardia, de servicio
Gurbil, sotil = discreto
Espa, aiuma = queja
Zaitzaille = agente
Txinel = guardia
Agerpen, txosten = información
Egongu = residencia
Atezaitza = portera
Agerbide = descripción
Agindaripeko = funcionario
Erakusmai = mostrador

III

Errekesta = éxito
Atun, atin = experiencia
Barla = patio

Kokoma, kurinto-kapela = sombrero hongo
Peku = sospecha, recelo
Koratillo, barnedipon = chaleco
Tato = pedazo (carne, pescado, pan, etc.)
Oinzirri = alfombra
Soiñeko gizatankerazko = corte sastre
Gibel-bildur = desconfianza

IV

Beltzuri = animadversión
Lupuki = alcabuate, confidente
Zipo = provocación
Belarrondo bizar = patillas
El-dei = cita
Irarkunduna = con membrete

V

Ohorezko sailleko izardun = oficial de la Legión de Honor
Erri-begirale = funcionario público
Txingi, zorgoin, ubelili = margarita, amapola, violeta
Arkazi = acacia
Uleguri = terciopelo
Oregozo = pastel
Abiyeik = voz de alarma

Testu-zatiak

1. orrialdea

Gela ura zearraga beltz batek bi aldetan bereizia zan. Alde bata, yendearentzako lekua zan: zizelu edo alkiluze bat, bizkarrolgabe —au ere beltzez margoztatua— agindu-paperez

betea zan horma zuria yoten zegoan. Beste aldean, baziran mai, tinteru ta apalak ugari liburuz beteak, beltzak auek ere; eta onela, toki artan beltz eta zuri beste kolorerik ezegoan. Lurrean, letoizko maindire baten gainean burnizko estufa zazar bat agiri zan nabarmen, orain erri koxkorretan bakarrik ikusten ditugun gisara; aren odia zui zegoan lenbizi zerurantz, gero okertusamar eta azkenez gela ura alderen-alde zerkatuz orman sartu eta bukatzen zan.

31. orrialdea

Bederatziak amar gutxiagotan, Maigreten emaztea, ozkirritsu ta yaboe usainez logelako errezelak alde batera biltzen ari zan, eguzkiaren izpieri bide egiteko. Ez zan denpora luzea ezkondu zena, eta gizon erdiloa ikusten gutxi oitua zan, artean. Gizon erdiloa, bibote gorritaren muturrak dardarez, illeak irauliak, eta bere kopet-azala ikaraka euliren bat bertaratzen zenean... Parra egiten zuan. Parra beti goizetan eskuan kafekatilluska zuala senarraganatzen zenean. Au bitartean begiak ez so bai so, aur antzean ari begira...

116. orrialdea:

Yantokiaren leio kisketean izpillua zintzilik, bizarra moztan ari zan Maigret bere etxe mailean. Goizetan ba zuan seta gure gizonak emaztearen atzetik ibiltea etxebizitzako gela guztietatik, emen apaindu, or yantzi, an orraztu, agian orduan izaten baitzuan beta egokiena arekin laztanlaztan egoteko. Egia da arranotan, aren emazteak zuan egokitasuna: arratsalde erdian bezain mardul eta bizi eta atsegingarri zan oetik yaikieran ere. Eta leioak idekirik ziran giñoan alere, aize berria gorputzeratzen zuten. Errementari baten dangadak, kamioen otsak eta zaldien irrintziak zetozan belarrietara, eta auzoko etxe aldaketarien ukuillutiko sats-usai epel-anixa ere sumatzen zan aien garbiketa aldietan.